

kuskariak

KOORDINATZAILEA

Lorea Agirre

LAGUNTZAILEAK

J.J. Iribar

Imanol Agirre



Lau musikariak eszenografiako parte dira.

CARLOS VILLAGRAN

Hansel eta Grettel Tanttakaren eskutik

'Hansel eta Grettel bezala' lana otsailaren 2an Donostian antzeztuko dute

Bihar estreinatuko du Tanttaka taldeak bere azken antzezlana Gijon-eko Haurrentzako Antzerki Jaialdian. E. Humperdinck operagileak Grimm anaiek idatzirik ipuina opera moldetara ekarri zuen. Tanttakak opera hau oinarri, erdi kantatua erdi antzeztua den antzezlana burutu du.

LOREA AGIRRE / DONOSTIA

E. Humperdinck musikaria Wagner-ekin elkarlanean aritu izan zen eta bere operak badute maisu honen eraginik. Herri musika tradizioarekin oinarritu zen opera hau burutzeko. Tanttakakoek eta bereziki obra honen zuzendari eta dramaturgia egile den Garbi Losadak, opera zatirik gustokoenak aukeratu dituzte eta hitzezko pasarteekin elkar lotu.

Garbi Losada zuzendariak adierazi digunez, «historia umoretsua osatu dugu ipuina oinarri dela. Hansel eta Gretel pertsonaiez gain, aita, sorgina eta iratxo bat sartu ditugu lanean. Ipuina erabat formato klasikoak egin dugu. 'Bazen behin...' gisako ipuin bat da. Aurkezpena, istorioaren bilakaera eta noski bukaera zoriontsua du antzezlana».




Antzezlanean azken egunetako ensaioan, musikariak eta jokolariak. CARLOS VILLAGRAN

Tanttaka 1983an sortu zenean, lehen antzezlana kalekoa izan zen eta bigarre-na, 'Bai, baina non?', haurrentzako obra izan zen. Geroztik 'Mujer frente al espejo' ('Emakumea ispiuaren aurrean'), 'Ondoloin', 'Agur, Eire... agur', 'De Profundis', 'Flaminio' eta 'Kontuz maite zaitut' antzezlana kaleratu dituzte. Azken hirurak musikalak izan dira. «Antzezlana musikatzea oso gustoko dugu eta azken hirurak bide horretatik joan dira. 'Hansel eta Gretel' ere musika da. Hurrengo beharbada beste bide batetik joango da, baina ez dut uste» argitu digu Garbi Losadak.

Haurrentzako antzerkia egitea ez zuten helburu, orain lau hilabete inguru proiektu honi heldu ziotenean. «Gure asmoa opera hau egitea zen, ez bereziki haurrentzako izango litzatekeen antzezlana bat paratzea. Ipuin klasiko bat da, haurrentzat idatzia, baina nik uste lan hau ikuslego zabalarentzat dela, ez bakarrik haurrentzat».

Egin dituzten musikal guztietan bezala, azken honetan ere musika zuzenean jotzen duten musikariak eszenografiaren parte dira. Lau dira musikariak: Juan Mari Ruiz (oboe eta adar ingelesa), Jimmy Bidaurreta (fagota), Estibaliz Galardi



HANSEL-EN PAPEREA

Angel Pazos tenoreak egiten du. Grettel berriz, Mar Carrero sopranoak gorpuzten du.

(biolina) eta Ainara Sagarna (pianoa). Musika konponketak Carlos Jimenezek egin ditu.

Eszenografia Victor Rubiok egin du. Fantasiak baso bat dago taulan. Dekoratu bakarra daba ere mogikorra da, zuhaitzak mogitzen bait doaz. Koldo Losadak eginiko jantzi diseinuei dakgo-kionez, hauek ere fantasiakoak dira, pertsonai erreal eta irrealen artean bereizketa egin dela.

BI KANTARIAK JOKOLARI Hansel-en paperean Angel Pazos, tenorea dago. Grettel pertsonaia Mar Carrero sopranoak egiten du. Bi opera kantari, pertsonaia nagusien paperean beraz. Aitaren eta sorginaren papera Koldo Losadak egiten du (antzeztu eta kantatu) eta iratxo Itziar Suarez da (antzeztu soilik).

Jokolarien eta kantarien arteko lotura maila berdinduan egotea izan da asmoa. «Noski, kantariak ez dira jokolari eta maila batean hori igartzen da antzezlanean. Baina ez dute jokolariek baino okerrago egiten, desberdin baizik» Losadaren ustez. Zati kantatuak eta hitzezkoak lotuz doaz; ez dago kantaldietarako etenik. Opera klasikoan bezala kantuen hitzak elkarriketak dira eta istorioaren hariari jarraitzen diote. «Egia esan zailena kantuen hitzak itzultzea izan da, azentua, erritmoa, soinu mota eta beste kontutan izan behar direlako. Ensaioetan kantarien laguntzaz aldatuz joan dira gauzak. Bestalde jatorrizko gure gidoia kasik osotasunean mantendu dugu. Ensaioak baino lehenago nahiko landua genuen eta ez dugu aldaketa handirik egin behar izan». Lehen antzezpenean gazteleraz izango bada ere euskarazko bertsioa laster izango dute martxan.

GARBI LOSADA

Antzerki zuzentzaile bezala lehen lan serioan buru belarri

Garbi Losadak dramaturgia idatzi eta antzezlana zuzendu du, 'Hansel eta Grettel bezala' antzezlanean. Hernaniko antzerki tailerrean gaztetxoekin zuzendari lanetan ibili da, baina berak dioen bezala seriooki lehen aldia da jende aurrerako antzezlana bat zuzentzen duela.

Tanttaka taldean hasieratik dago. Donostiako Zorroagan ikasten ari zela antzerkia egiten zuen. Ez du ikasketa berezirik izan. «Karrera ikasten ari nin-

tzela eta beste hainbeste urte antzerki eskola batetara sartzeko pazientziarik ez nuen. Nik nahi nuena antzezteaz zen».

Tanttaka taldeak, azken antzezlana honetaz gain 'Flaminio' eta 'Kontuz, maite zaitut' ditu kartelean. Azken bietan antzeztu eta kantatu egiten du. Hirugarrenean zuzendu. Hala ere antzerkiatik bizitzea zaila dela badaki eta denborarik ere ez du beste ezertan aritzeko.

Zuzendariak funtzio desber-

dinak dituela dio. Kasu honetan dramaturgia berak idatzi duenez, bere fanatasia gauzatzea da helburua. Jokolariek fantasi horretan euren sartzeara. «Antzezlana ondo ateratzen denean taldearen meritoa izaten da normalean. Baina gaizki ateratzen bada errua zuzendariarena da».

Bere lagun batek esan omen zion zuzendariak duen funtzio bakarra jokolariak taulan elkarrekin txokeik ez egitea da.

